cristinaenea
fundazioa

# ‘Ni, Urumea’ dokumentalaren emanaldiak Donostian

*Ekainaren 30ean, ‘Ni, Urumea’ dokumentalaren azken emanaldia izango da Donostiako Antzoki Zaharrean (21:00etan). Bertan bilduko dira dokumentalaren ekoizpenean parte hartu duten eragile, erakunde eta pertsona guztiak, amaiera festa gisa antolatu den ekitaldian.*




Labrit Multimedia ekoiztetxearekin elkarlanean eginiko lan honek ibaiaren bidean zehar testigantzak eta bizipenak jasotzen ditu, horien bidez ibaiari ageriko protagonismoa emanez, ez bakarrik naturaren eta hirigintza gatazken ikuspuntutik, baizik eta gizakion harremanen alorretik ere: arrantzale, basozain, kirolari eta ibai bazterreko hainbat lekukoren istorio, kondaira eta anekdotak biltzen ditu dokumentalak, Urumea bizitzeko bakoitzak duen ikuspegia azaleratuz.

Kalitate eta edertasun handiko irudiak, ibaiarekin harreman estua (izan) duten pertsonen testigantzekin uztartzen dira lan honetan, Urumeak bakoitzaren nortasunean izandako garrantzian sakonduz.

Urumea ibaiak lehen pertsonan hitz egiten digu dokumental honetan, bere uraldiez, bere biologia aniztasunaz, jasaten dituen kalteez, eta, bereziki, bere ur-bazterretan bizi den jendearekin historian zehar izan dituen harremanez.

Ibaiaren fauna eta flora ere, ingurumenarekiko kontzientziazioa helburu duen dokumental honen pertsonaiak dira. Ingurunearekiko identifikatzean eta paisaia kulturalaren

IFK/NIF: G-20.988.432
Erregistroa: F252

deskribapenean oinarritutako film honek, argazki-estetikaren, bioaniztasun ezagutzaren, ezustekoaren, eta, batez ere, emozioen artean nabigatzen du.

Honakoa aukera aparta da kulturalki, antropologikoki eta etnografikoki ibaiak herri batean izandako eragina ulertzeko eta ezagutzeko, harreman horretan murgiltzeko, herritarren euren ahotik entzundako adierazpenen bidez. Baina baita herriek, pertsonek, gizakiek, ibaian izandako eraginetan sakontzeko ere, bien arteko elkarreraginak definitu izan baitu bakoitzaren izaera.

**Dokumentalaren proiekzioak Donostian**
Ezkurra mendatean sortu eta Donostiara iritsi arteko 46 kilometroko bidean, Urumeak Goizueta, Arano, Hernani eta Astigarraga bustitzen ditu, eta herri horietan guztietan izan dira azken asteetan dokumentalaren emanaldi publikoak. Oraingoan, dokumental sortaren azken txanpan, hiru proiekzio izango dira Donostian: ekainak 28an Martuteneko Etxarriene Auzoetxean (19:00etan), ekainak 29an Loiolako Kultur Etxean (19:00etan) eta ekainak 30ean Antzoki Zaharrean (21:00etan).

Ekainak 30eko azken proiekzio hori, dokumentalaren emanaldi-sortaren amaiera festa izango da, eta bertan elkartuko dira dokumentalean parte hartu duten erakunde eta eragileetako ordezkariak, bai eta filmean elkarrizketatuak izan diren pertsonaiak ere, zeinak Urumearekin duten harremanaren ikuspegi pertsonala eman duten.

Lanak honako erakunde eta Udalen babesa izan du: Cristina Enea Fundazioa, URA. Uraren Euskal Agentzia, Nafarroako Gobernua, Añarbeko Urak, Donostiako Udala, Errenteriako Udala, Goizuetako Udala, Aranoko Udala, Hernaniko Udala, Astigarragako Udala.

Dokumentalaren materiala hedabideetara eskaripean bidaltzeko aukera dago (argazkiak, ahots-korteak, kontaktuak…). Dokumentalaren trailerra: http://vimeo.com/159193962.

IFK/NIF: G-20.988.432
Erregistroa: F252

# Proyecciones del documental 'Yo, el Urumea' en San Sebastián

*El 30 de junio tendrá lugar la última proyección del documental 'Yo, el Urumea' en el Teatro Principal de San Sebastián (21:00 h.). En ella se darán cita los agentes, instituciones y personas que han participado en la producción del documental, en un acto organizado como fiesta final de las proyecciones.*




IFK/NIF: G-20.988.432
Erregistroa: F252

Este trabajo realizado en colaboración con Labrit Multimedia recoge los testimonios y vivencias a lo largo delr ecorrido del río, dotando al Urumea de especial importancia, no solo desde el punto de vista del medio ambiente y el urbanismo, si no desde desde los ámbitos de las relaciones humanas: el trabajo recopila historias, relatos y anécdotas de pescadores, guardabosques, deportistas y testigos del paso del río, haciendo aflorando el modo de vivir el Urumea de vada uno de ellos.

Imágenes de gran calidad y belleza, confluyen con testimonios de personas que viven y han vivido una estrecha relación con el Urumea, profundizando en la importancia que ha tenido el río en la personalidad de cada entrevistado.

El río Urumea nos habla en primera persona de sus crecidas, su diversidad biológica, los daños que sufre, y, sobre todo, de las relaciones que ha mantenido con los habitantes de sus riberas.

También la fauna y la flora son los protagonistas de este documental, con carácter concienciador ambiental. Este trabajo basado en la descripción del paisaje cultural y la

identificación con el medio, navega en la sabiduría biológica, la sorpresa y sobre todo, la emoción, a través de planos con estética fotográfica.

Esta es una oportunidad interesante para enetnder y conocer ele efecto que ha tenido el río en un territorio, desde el punto de vista cultural, antropológico y etnográfico, para profundizar en esa relación a través de los testimonios que escucharemos de boca de los propios vecinos. Pero también podremos profundizar en la influencia de los propios municipios, vecinos y personas en el río, ya que la interacción de ambos ha forjado la personalidad de cada uno, territorio, personas y río.

**Proyecciones del documental en San Sebastián**

En su recorrido de 46 kilómetros desde su nacimiento en los montes de Ezkurra hasta su desembocadura en San Sebastián, el Urumea recorre los municipios de Goizueta, Arano, Hernani y Astigarraga, y en todos ellos se han llevado a cabo proyecciones del documental durante las últimas semanas. Esta vez, en la parte final de la serie de proyecciones, habrá tres proyecciones en San Sebastián: 28 de junio en el Auzoetxe Etxarriene de Martutene (19:00), el 29 de junio en la Casa de Cultura de Loiola (19:00) y el 30 de junio en el Teatro Principal (21:00). Del mismo modo, las proyecciones siguen el mismo recorrido.

La proyección del 30 de juniosérá la fiesta final de la serie de proyecciones del documental, y en ella se reunirán representantes de las instituciones y agentes que han participado en la elaboración del documental, así como las personas que han sido entrevistadas, y que han ofrecido su personal visión sobre su relación con el Urumea.

El trabajo ha contado con el apoyo de las siguientes instituciones y ayuntamientos: Fundación Cristina Enea, URA. Agencia Vasca del Agua, Gobierno de Navarra, Aguas del Añarbe, Ayuntamientos de San Sebastián, Rentería, Goizueta, Arano, Hernani y Astigarraga.

Existe posibilidad de ofrecer material a los medios bajo pedido (fotografías, cortes de voz, contactos…). Trailer del documental: https://vimeo.com/159214820.

IFK/NIF: G-20.988.432
Erregistroa: F252